

MADEJAS PROIEKTUA

Astigarragan hasitako indarkeria sexistaren kontrako bufanda 2.220 metro luze da

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Astigarragan eman zituzten lehen puntadak, eta indarkeria sexistaren kontrako Madejas proiektuaren bufanda erraldoia dagoeneko 2.220 metro luze da. Eta luzatzen segitzen du. Euskal Herriko bazterretan zein Estatu espainoleko nekazari herri txikietan joan da luzatzen, parekidetasuna ehuntzen lagundu duen bitartean.

Astigarragan hasi ziren, 2014. urtearen lehen hila-beteetan. Konturatzera, 1.500 metro luze zen. Indarkeria sexistaren kontrako Madejas proiektuaren mamia xumea da: taldean elkartu eta bufanda trikotatu, parekidetasuna ehuntzeko. Erreleboka, herri-rik herrira dabil geroztik. Uste baina urrunago eta espero baina luzeago.

Isa Otero Glorie izan da proiektuaren bultzatzaile nagusia. «2011. urteko hauteskunde-

en ondoren EH Bildurekin sartu nintzen Astigarragako Udalera berdintasun eta herritarren parte hartze alorreko zinegotzi modura. Segituan lanean hasi ginen eta emakumeei begirako ekintzarik apenas zegoela ikusi genuen, batez ere adin batetik aurrera. Bingoan jokatzeara zen kasik aukerarik onena. Eta adin bateko emakumeei zerbait eskaini beharra sentitzen genuen, ikasten zahartzearen ideari eusteko beharra», hasi da kontatzen. Hango eta hemengo esperientziak ezagutu eta esperientziaren eskola bat antolatu

zuten lehendabizi Astigarragako Udaletik. Bertan denetarik ikasketak jasotzen zituzten. Eta astero eskola horretan elkartzen ziren emakumeak puntua egiteko talde bat osatzeko tentatu zituen Isa Oterok, eta bete-betean asmatu zuen.

«Hasiera batean herritar batek utzitako lokal batean elkartzen ginen, hilabete behin, puntua egiteko. Eta pixkanaka asterokoa bihurtu zen hitzordua». Oterok, baina, elkarre bat sortzeko beharra ikusten zuen. «Ni ez nintzen betirako zinegotzia izango eta taldeak egitura

Ezkerreko irudian, lehen planoan, Isa Otero Glorie, Madejas proiektuaren bultzatzailea. Eskuinaldean, lerroon azpian, Astigarragako Harituz taldekoak puntua egiten. Ikor KOTX

finko bat behar zuen». Eta, kostata, baina azkenean konbentzitu zituen.

«Nik esaten nien elkarre bat sortu behar genuela, Udaletik aparte, bere kasa funtzionatuko zuena. Hasieran ez zuten nahi, baina azkenean konbentzitu nituen. Elkarrearen izena aukeratu beharra zegoen ondoren eta hor ere komeriak. Garai hartan 'ahalduntzea' hitza zegoen moda-modan, baina hori ez zitzairen batere gustatzen taldeko- ei. Azkenean, Astigarragako gizon-emakumeen berdintasun eskola, 'Harituz'. Izen horixe jarri genion».

Geroztik herriko kultur etxean lortu zuten astero puntua egiteko biltzeko txokoa eta taldea sendotzen joan zen. «50 urtetik gorako hamabost bat emakume taldea da. Hasieratik garbi ikusi nuen energia handia zuela talde horrek, handik edo hemendik atera beharreko energia. Akordatzeko naiz hasieran afariak-eta antolatu eta batzuk ez zirela berehalakoan animatzen, 'senarrari galdetuko diot' eta halakoak esaten zituzten. Geroztik, pixkanaka eta beren kabuz, ahalduntze prozesu ikaragarria egin dute».

Duela hilabete batzuk Emakunderen ekitaldi batera joan eta Marcela Lagarde antropologo feministaren hitzaldia en-



tzun zuten, ahalduntzearen inguruan. «Hitzalditik atera ginean, taldekoek segituan esan zidaten 'guri horixe pasatu zai-gu'. Sekulakoa izan zen».

Harituz taldeko kideak feminismoan murgildu dira kasik konturatu gabe. «Eta behin be-turreko moreak janzten ditu-zunean, ezin dituzu berehalako-an kendu», iritzi dio Oterok.

2014ko AZAROA

Harituz taldea martxan, 2014ko azaroaren 25ari begira jarri zi-ren bertako kideak. «Indarkeria sexistaren aurkako egunerako zerbait berezia egin nahi ge-nuen, desberdina. Nik Haurral-de Fundaziokoekin harremana-nuen eta handik sortu zen ideia: 'Elkartasuna josi dezagun'. Eta horri tiraka pentsatu genuen bufanda erraldoi bat egitea, Udalarekin eta Haurralderekin lankidetzan, azaroaren 25ean nonbait zintzilikatu eta indarke-ria sexista bistan jartzeko».

Hasierako helburua Euskal Herriko bufandarik luzeena egi-tea zen, indarkeria sexistaren aurkako ekintza sinbolikoa, bo-rroka hori jendarte guztiaren ar-tean josi beharrekoa dela aditze-ra emango zuena. Bada, sare sozialetan egin asmo zutenaren berri ematen hasi eta proiektuak espero ez bezalako tamai-na hartu zuen. «Irailetik aurrera

bufanda zatiak iristen hasi ziren munduko toki guztietatik. Seku-lakoa izan zen. Akordatzan naiz nolako festa sortzen zen udale-txera pakete bat iristen zen ba-koitzean».

2014. urteko azaroaren 25era-ko 1.250 metro batzea lortu zu-ten, handik eta hemendik jaso-tako puntuzko oihal zatiekin. Udaletxeko aurrealde guztia ta-patzeko adina. Ordurako, seku-lako sarea osatuta zuten Astiga-rragatik hasi eta Estatu espainoleko hainbat herri eta hirietaraino. «Hainbeste lan egin genuenez eta halako ilu-sioa inbertitu genuenez, erabaki genuen proiektuak ezin zuela hor amaitu eta segida ematea erabaki genuen. Kordobara joan beharra zegoela erabaki genuen. Zergatik? Ba Kordobatik 500 metro iritsi zirelako. Akordatzan naiz nola abisatu zidaten Kordo-batik 500 metro zetozeela. Ezi-nezkoa zela pentsatu genuen, nahastu egin zirela. 50 metro izango zirela eta nahastuta 500 esan zigutela. Baina udaletxera joan eta hango pakete mordoa ikusi genuenean konturatu gi-nen ez zirela nahastu. Kordoba-tik 500 metro bufanda!».

Hartara, 2015eko azaroaren 25ean Kordoban egon zen bu-fanda erraldoia. «Gero eta eza-gunagoa izan proiektua, gero eta toki gehiagotatik eskatzen

digute bufanda. Aurten dagoe-neko Toledoko eta Valentziako zenbait herri txikitan egon ga-ra». Madejas proiektua herri ba-tera iristen denean bufanda lu-zatu egiten da, baina ez hori bakarrik. Bertako Udalak kan-paina bat egin behar du indarke-ria sexistaren kontra. «Eskolak, herriko elkarteak... denak hartu behar ditu kontuan kanpainak. Ez da bakarrik bufanda ehundu behar, parekidetasuna da bene-tan ehundu behar dena eta uda-lek konpromiso hori hartu be-har dute».

MARTXAN DAGOEN BITARTEAN, SEGI

Oraintxe bufanda Valentzian dago, hilabete darama bertan, lekukoa hartuko duen hurrengo herria agertzen den arte. «Mar-txan dagoen bitartean, segi egingo dugu. Madejas proiektuaren lorpenik garrantzitsuena nagusiki eskoletara eta erretira-tuen etxeetara iristen dela da. Eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu sektore horietara iritsa-raztea parekidetasuna».

Normalean talde feministeta-ra gerturatzen ez diren emaku-meek parte hartzen dute Made-jas proiektuan, nekazari herri txikietako adineko emakumeak. Eta horrek ezusteko eder asko eman dizkie Harituz taldekoei. «Pixkanaka sare bat ehuntzen ari gara, orain arte elkarren be-

info+

Facebook:

Madejas contra la
violencia sexista

rri ez zuten emakume taldeak harremanetan jartzen ari gara, nahiz eta maiz ondoko herriko-ak izan. Eta hori sekulakoa da. Guk hazia uzten dugu herri ho-rietan eta gero, ura botatzen ba-diote, hazi horrek emango du bere fruitua».

Isa Oterok kontatzen duenez, Estatu espainolean barna neka-zari herri txikietan oso espe-rientzia politak bizi izan dituzte. «Emakume askok lana besterik ez dute egiten, lana etxean eta lana soron. Madejas proiektuan parte hartzea berentzat ai-sialdirako tarte bat hartzeko au-kera izan da, beste emakume batzuekin elkartzeko pixka ba-tean puntua egiteko aitzakian. Benetan interesgarria izan da».

URRIAN, GIPUZKOAK EHUNDUKO DU

Madejas proiektua Astigarragan sortu zen eta segidan zabaldu zen Euskal Herritik kanpo. Bai-na, aldiz, etxean, Euskal He-rrian, gutxi samar ezagutzen den sentipena daukate. «Ez da-kigu zergatik, baina ez dugu lor-tu Gipuzkoan eta Euskal He-rrian, oro har, proiektua ezagun bihurtzea. Eta hori da orain gure erronka. Urrira begira erronka eder bat daukagu Madejas proiektua Gipuzkoan ezaguna egiteko. Urrian Gipuzkoak pare-kidetasuna trikotatuko du», au-rreratu du Isa Otero Gloriek.

Beheko aldean, 2014ko azaroaren 25ari begira –indarkeria sexistaren kontrako eguna– Astigarragako udaletxean jarritako bufanda erraldoia, Madejas proiektuaren metxa piztu zuena.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

